

CARITASEN KANPAINA

2013.eko ekainaren 2a

KRISTOREN GORPUTZ ETA ODOL SANTUA (C)

KARIDADE EGUNA:
**«Eta nik,
zer egin dezaket?»**

Liturgi lagungarriak

Atarikoak:

- ✿ Lagungarri honeek, luzerari zein hizkerari jagokonez, alkarte baktxaren inguruabarrei moldatu behar jakezala gogoratzen dogu barriro be.
- ✿ Egun honetan, Karidade Eguna ospatzen da; egun honek lehen Eguen Santuz ospatzen zan Senide Maitasunaren Egunaren sena be jasoten dau.
- ✿ Ondo legoke Caritaseko boluntarioek gaurko ospakizunetan partaidetza esanguratsu eta gogotsua izatea.

SARRERAKO OHARRA

Anai-arrebok: domekero lez, eukaristia ospatzeko batu gara, baina gaur, aparteko arreta jarriko dogu gure batzar honen funtsean, bere burua azkeneraino emon eban kristoren maitasunaren jaia ospatzen dogulako. Jauna bera azalduko da gure artean bere Gorputz eta Odolean. Zatitzen eta banatzen dan ogiaren eta eskaintzen dan ardaoaren antzekoa da Kristoren bizitza. Eukaristia baktxean, bere heriotza iragarten dogu eta Jaunaren sentimentu eta jarrera berak eguneratzen doguz.

Karidade egun honetan, “eta nik, zer egin daiket?” galdera eginez hurreratzen jaku Caritas. Krisiak ez gaituelako garaituko. Gizabanako eta familia kaltetu larregi. Egoera ga-txak, batzuetan larriak. Badago itxaropenik. Zeinu baktxean, detaile baktxean, ekimen baktxean... Asko gara eta argi daukagu. Horrexegatik osatzen dogu Caritas.

CAMPAÑA DE CÁRITAS

2 de junio de 2013

EL SANTÍSIMO CUERPO Y SANGRE DE CRISTO (C)

DÍA DE LA CARIDAD:
**«Y yo,
¿qué puedo hacer?»**

Subsidios litúrgicos

Notas previas:

- ✿ Recordemos la necesidad de que estos subsidios se adapten en su extensión y lenguaje a las circunstancias de cada comunidad.
- ✿ Este es el Día de Caridad que recoge también el sentido del Día del Amor Fraternal que antes se celebraba el Jueves Santo.
- ✿ Estaría bien que el voluntariado de Cáritas participara activamente en las celebraciones de hoy.

MONICIÓN INICIAL

Hermanas y hermanos: Como cada domingo, celebramos la eucaristía, pero hoy nos detenemos un poco más a pensar en lo fundamental de nuestra reunión, porque celebramos la fiesta del amor de Cristo, entregado hasta el fin. El mismo Señor se nos hará presente en su Cuerpo y en su Sangre. Como el pan que se parte y se reparte, y el vino que se ofrece, así es la vida de Cristo. En cada Eucaristía, anunciamos su muerte y actualizamos los mismos sentimientos y actitudes del Señor.

Cáritas se acerca hoy a nosotros en este Día de Caridad. “Y yo, ¿qué puedo hacer?” es la pregunta que nos hace. Porque la crisis no nos va a vencer. Demasiadas personas y familias afectadas. Situaciones difíciles, a veces dramáticas. Hay esperanza. En cada gesto, en cada detalle, en cada iniciativa. Somos muchas personas y lo tenemos claro.





Caritasen parte hartu daikegu, Caritas izan gaitekez, Caritas egin daikegu.

Abestian bat egin eta ospakizunari ekingo deutsagu.

SARRERAKO ABESTIA

ABADEAREN AGURRA

Zerutik jatsi dan Jauna, ogi bizia, zuekin.

DAMU-OTOITZA

Domekako eukaristian gutako bako-txak, banan-banan, Kristogaz bat egiten dau. Bere maitasunak sinisten dogunon bihotza ikutzen dau, guran lagunurkoaganako maitasuna biztuz. Prestatu gaitez an bategite horretarako.

– Ogiak biderkatu zenduzan, gosetiei jaten emoteko. *Erruki, Jauna.*

– Aberatsa izanda, txiro bihurtu zinan gu aberasteko. *Kristo, erruki.*

– Ogi bihurtu zinan, zeure biziaz gu janaritzeko. *Erruki, Jauna.*

OHARRA 1. IRAKURGAIARI

(Has 14, 18-20)

Melkisedek eta Abrahamek, gizon aparta eta esanguratsuek, bat egiten eta alkar onar-tzen dabe. Ez dago norgehiagokarik, opari eta bedeinkapena baino. Ogiak eta ardaoak sakrifizio baketsua ospatzeko balio dabe. Eukaristiaren aurrerapena da.

OHARRA 2. IRAKURGAIARI

(1Ko 11, 23-26)

Bigarren irakurgaiak eukaristia-tradiziorik zaharrena jasoten dau. Jesusek bizia emotera daroan maitasunaren zeinu bihurtu ebazan ogia eta ardao. Jaunartzen dogun bako-txean maitasun horrez bete behar dogu.

Por eso formamos Cáritas. Podemos participar en Cáritas, ser Cáritas, hacer Cáritas.

Nos unimos en el canto e iniciamos la celebración.

CANTO DE ENTRADA

SALUDO DEL PRESIDENTE

El Señor, pan vivo que ha bajado del cielo, esté con todos vosotros.

ACTO PENITENCIAL

La eucaristía dominical es la experiencia de un encuentro personal con Cristo, cuyo amor toca el corazón de quienes creemos, suscitando en nosotros el amor por el prójimo. Preparémonos para este encuentro.

– Tú que multiplicaste los panes para saciar a los hambrientos: *Señor, ten piedad.*

– Tú, que siendo rico, te hiciste pobre para enriquecernos: *Cristo, ten piedad.*

– Tú que te hiciste pan para alimentarnos con tu propia vida: *Señor, ten piedad.*

MONICIÓN A LA 1ª LECTURA

(Gn 14, 18-20)

Melquisedec y Abraham dos figuras extraordinarias y significativas, se encuentran, se acogen mutuamente. No hay rivalidad, sino ofrenda y bendición. El pan y el vino sirven para celebrar un sacrificio pacífico. Es anticipo de la Eucaristía.

MONICIÓN A LA 2ª LECTURA

(1Co 11, 23-26)

La segunda lectura recoge la más antigua tradición eucarística. Jesús hizo del pan y del vino un signo de un amor que lleva a dar la vida. Cada vez que comulgamos debemos llenarnos de ese amor.

SARRERA EBANJELIOARI
-Aleluiaren aurretik- (Lk 9, 11b-17)

Ogien ugalketa be eukaristia-zeinua da. Kristok ogia zatitzen eta ugaltzen dauanean, bere gorputza dau buruan.

Munduko gosetien aldeko karidadezko konpromisoa be bada. Benetan txiroenen lekuan ipiniko bagina, gose guztiak aseko litzatekez, ogiarenak eta duintasunarenak.

JAINKO HERRIAREN OTOITZA

Egin deiogun otoitz Jesukristoren ogia eta eguneroko ogia emoten deuskun Jaungoiko errukitsuari.

- Elizearen alde, eten barik entzun daian txioren deadarra eta bere egin daizan euren oinaze eta itxaropenak.
Eskatu deiogun Jaunari.

- Caritasen alde, bere onena emoten dauan eta bere konpromisoa ilusinoz, itxaropenez eta ahaleginez beteko dauan boluntario askok jardun daian bertan.
Eskatu deiogun Jaunari.

- Krisialdi honetan txarto pasatzen ari diranen alde, babesa, laguntza, konfiantza, hurkotasuna eta erantzunak jaso daiezan eten barik. *Eskatu deiogun Jaunari.*

- Eukaristia ospatzeko batzen garanon alde, Kristo komulgatuz, anai-arrebak be komulgatu daiguzan.
Eskatu deiogun Jaunari.

Entzun, Aita, gure otoitza eta Jesukristo, betiko biziko ogiaren gose izan gaitzala beti. Errege bizi da-eta, gizaldi eta gizaldi guztietan.

MONICIÓN AL EVANGELIO
-Antes del Aleluya- (Lc 9, 11b-17)

La multiplicación de los panes es también un signo eucarístico. Cuando Cristo parte y multiplica el pan, está pensando en su propio cuerpo.

Es también un compromiso de caridad con los hambrientos del mundo. Si realmente nos pusiéramos en el lugar de los más pobres, todas las hambres podrían ser saciadas, las de pan y las de dignidad.

ORACIÓN UNIVERSAL

Oremos a Dios, rico en misericordia, que nos da el pan de Jesucristo y el pan de cada día.

- Por la Iglesia, para que nunca deje de escuchar el clamor de los pobres y se haga eco de sus sufrimientos y esperanzas. *Roguemos al Señor.*
- Por Cáritas, para que en ella sean muchas las personas voluntarias, que dan lo mejor de sí mismas y derrochan ilusión, esperanza, esfuerzo en su compromiso. *Roguemos al Señor.*
- Por las personas que en estos momentos de crisis lo están pasando mal, para que no dejen de recibir apoyo, ayuda, confianza, cercanía y respuestas. *Roguemos al Señor.*
- Por quienes nos reunimos a celebrar la eucaristía, para que comulgando a Cristo, comulguemos también con los hermanos. *Roguemos al Señor.*

Escucha, Padre, nuestra oración, y haz que tengamos siempre hambre de Jesucristo, pan de vida eterna. Él, vive y reina por los siglos de los siglos.





OHARRA DIRUA BATU AURRETIK

“Neuk be parte hartu, lagundu, jardun egin gura dot” esateko eguna da gaurkoa eta, holan, Bizkaiko Caritaseko bazkide edo boluntario izateko urratsa emotekoa.

Orain batuko dogun dirua Caritasi emongo jako bere egitasmoak garatzeko erabili daian. Eskerrik asko eskuzabaltasunez jokatzeagaitik.

JAUNARTZE OSTEKO ISILUNEAN

Aita, zure esku, begi, bihotz izan gura dot. Besteari Zeuk begiraten deutzazun lez begiratu: maitasun eta samurtasunez betetako begiradaz. Begiratu eidazu maite nozun, deitzen nozun eta bialtzen nozun betetasun horretatik.

Jasotako doearen esperientziatik eta danen, eta bereziki txiroenen, aldeko emote apal eta egunerokoaren doakotasunetik egin gura dot.

Bialdu naizu, Jauna, eta emon iraunkortasuna, irekitasuna eta hurkotasuna. Lagun egiten deutzadan eta egiten deustan horren oinetan ibiltzen erakutsi. Lagundu ogia ugaritzen eta zauriak sendatzen, eten barik irribarre egiten eta itxaropena alkarbanatzen. Zure diakonian zugaz itxuratuta zerbitzatu gura dot.

Eskerrik asko nire bizitzan itzi dozuzan samurtasun eta errukiz betetako arrastoengaitik. Zure Berban aurkitzen dot argi egiten deustan Argia. Otoitzean, emonkortzen eta arazten nauan Ura. Eukaristian, nire eskaintza sendotzen dauan eta Bizia emoten deustan Ogia. Nire makaltasunean, Jauna, zure sendotasuna aurkitzen dot egunez egun.

Amen.

MONICIÓN A LA COLECTA DE DINERO

Hoy es el día en que se nos propone decir: “Yo también participo, colaboro, actúo” y dar el paso para ser socios o voluntarios de Cáritas Bizkaia.

La colecta que ahora realizamos será destinada a sus proyectos. Gracias por vuestra generosidad.

EN EL SILENCIO, DESPUÉS DE LA COMUNIÓN

Quiero ser, Padre, tus manos, tus ojos, tu corazón. Mirar al otro como Tú le miras: con una mirada rebosante de amor y de ternura. Mirarme a mí, también, desde esa plenitud con que Tú me amas, me llamas y me envías.

Lo quiero hacer desde la experiencia del don recibido y con la gratitud de la donación sencilla y cotidiana al servicio de todos, en especial de los más pobres.

Envíame, Señor, y dame constancia, apertura y cercanía. Enséñame a caminar en los pies del que acompaño y me acompaña. Ayúdame a multiplicar el pan y curar las heridas, a no dejar de sonreír y de compartir la esperanza. Quiero servir configurado contigo en tu diaconía.

Gracias por las huellas de ternura y compasión que has dejado en mi vida. En tu Palabra encuentro la Luz que me ilumina. En la Oración, el Agua que me fecunda y purifica. En la Eucaristía el Pan que fortalece mi entrega y me da Vida. Y en mi debilidad, Señor, encuentro tu fortaleza cada día.

Amén

